

Ebazpena: R 8/2022
Espedientea: 14/2019

Gasteizen, 2022ko otsailaren 22an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak, Violeta Ruiz Almendral batzordeburu andreak eta Sofía Arana Landin batzordekide andreak eta Javier Muguruza Arrese batzordekide jaunak osatutakoak, honako hau erabaki du:

ERABAKIA

VSL zergapekoak (B39067426) Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren (aurrerantzean ZAEA) eta Bizkaiko Foru Aldundiaren (aurrerantzean BFA) aurrean aurkeztutako gatazka negatiboari buruzkoa, zeinaren helburua baita zehaztea Bilbon 2017an LAGUNDIARI erositako higiezinaren eskurapenaren kalifikazioa, zehazki, BEZari ala KOEri lotuta dagoen, eta ezartzea horren ondoriozko ordainarazpen-eskumena. Gatazka hori 14/2019 espediente-zenbakiarekin izapidetzen ari da Arbitraje Batzorde honetan.

I. AURREKARIAK

1.- VSLk Bizkaian du zerga-egoitza, eta 2017an BFAri bakarrik ordaindu zizkion zergak. Hala, aipatutako erosketan jasandako BEZa kendu zitzaion.

LAGUNDIAk Madrilen du zerga-egoitza, eta 2017an % 100ean ordaindu zizkion zergak ZAEARI.

2.- BFAk egiaztatu zituen VSLren 2017ko BEZa eta 2017ko KOEa. Ondorioz, bi desadostasun-akta egin ziren 2019ko otsailaren 15ean. Akta horietan, alde batetik, erosketan jasandako BEZaren kengarritasuna ukatu zen, BEZari lotuta

ez zegoela iritzita, eta, bestetik, KOE erreklamatzan zen, hari lotuta zegoela iritzita.

Egiaztapen-prozedura horretan, BFAk ez zion partaidetzarik eman ZAEARI.

3.- 2019ko martxoaren 15ean VSLek ZAEAREN aurrean autolikidazioa zuzentzeko eskaera aurkeztu zuen, diru-sarrera bidegabeen itzulketarekin, haren eragina jasan zuena izateagatik, eskumena duen BFARA bidalita.

4.- Data horretan bertan, VSLk BFARI eskatu zion gatazka planteatzea zezala ZAEAREN aurrean eragiketaren kalifikazioari eta eragiketa ordainarazteko eskumenari buruz.

5.- VSLk 2019ko ekainaren 14an aurkeztu zuen gatazka negatiboaren eskaera, eta 14/2019 gatazka-zenbakiarekin erregistratu zen.

6.- 2019ko uztailaren 1ean, ZAEAK diru-sarrera bidegabeak itzultzeko eskaera baiesteko erabakia eman zuen.

7.- Gatazka izapidetzea onartu ondoren, eta administrazio demandatuei hasierako alegazioen izapidea eman ondoren, ez dago desadostasunik eragiketa KOERI lotuta egoteari buruz, ez eta ordainarazteko eskumenari buruz ere.

8.- Zergapekoak atzera egiteko idazkia aurkeztu du, prozeduraren xedea gerora galdu delako.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Gatazka negatiboa planteatzeko baldintzei buruz. 1760/2007 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren (aurrerantzean EIABE) 13.1 artikulua gatazka positiboak

honela arautzen ditu: administrazio batek planteatutakoak dira, dela bere burua eskuduntzat jotzeagatik eta beste administrazioa bere eskumena urratzen ari dela ulertzeagatik –kasu horretan, inhibizio-errekerimendua egin beharko dio alde aurretik– dela bere burua eskumengabetzat jo eta beste administrazioak eskumen hori bere gain hartu beharko lukeela ulertzeagatik –kasu horretan, eskumenik eza deklaratu beharko du alde aurretik–.

EIABEren 13.3 artikulua arautzen du gatazka negatiboa zergapeko batek planteatzen duena dela. EIABEko hitzez hitzeko idazketak aukera ematen du planteamendua egiteko, ezein administrazioek bere burua eskuduntzat jotzen ez duenean. Kasu horretan, aukera ematen du gatazka positiboa planteatzeko epea amaitu eta hurrengo hilabeteko epean (hilabetekoa hori ere) proposamen negatiboa egiteko, eta ez dauka zertan administrazioek sustatua izan. Kontuan izanik gatazka positiboa planteatzeko beharrezkoa dela alde aurretik administrazio batek eskumengabetasun-deklarazioa egitea bestearen alde, eta administrazio horrek esanbidez edo isilbidez ez onartzea hilabeteko epean, badirudi ezingo litzatekeela gatazka negatiborik planteatu alde aurretik eskumengabetasun-deklaraziorik egin gabe.

Hitzez hitzeko interpretazio hori bateraezina da interpretazio finalistarekin; izan ere, interpretazio horretan saihestu nahi da justifikaziorik gabeko administrazioen jarduerarik ezak, zeinak administrazioen eskumengabetasuna eta kontrako alderdiaren eskumen korrelatiboa sustatzen baitu dagozkion prozedura-bide guztiak kontuan hartuta, galaraztea zergapekoak babes judizial eraginkorrerako duen eskubidea (Auzitegi Gorenaren egoitzan), kontuan hartuta, alde batetik, Arbitraje Batzordeak eskumena erabakitze eskumen eskusiboa eta baztertzaila duela; eta, bestetik, administrazio-bidean errekurritzeko betebeharra duela, eta kasu honetan eskumen-gatazka sustatzen duela, administrazioarekiko auzibidera jotzeko.

Horrela, gatazka negatibo bat planteatu daiteke bi administrazioen likidazio-akordio soil batekin, haien eskumena ukatuz, nahiz eta batek ere ez deklaratu bestearen aldeko eskumenik eza.

Era berean, gatazka negatibo bat planteatu daiteke bi administrazioek eskuduntzat jotzen dutenean beraien burua, eta normalean biek zergapekoaren aurrean jarduten dutenean, baina batek ere ez duenean gatazka positiborik sustatzen.

Hala ere, kasu honetan, gatazka negatiboa ez da bidezkoa, zergapekoak ez duelako 6 hilabeteko epea errespetatu (Tributuen Lege Orokorraren 220.2 artikuluan arautua –aurrerantzean, TLO–, 58/2003 Legeak onetsia, baina, TLOren 221.1 artikuluan ezarritakoaren arabera aplikatzekoa), ZAEAREN diru-sarrera bidegabeak itzultzeko eskaera ebazteko; beraz, ezin da ulertu bere uzia isiltasun negatiboaren bidez ezetsia izan denik.

2.- Auzi-jartzailearen atzera egiteko eskaera prozeduraren xedea gerora galtzean oinarritzen da, eztabaidagai den eragiketaren kalifikazioari buruzko desadostasuna desagertu delako.

3.- Prozeduran hirugarren interesdunak –ZAEA eta BFA– dauden arren, ez dago benetako gatazkarik eragiketaren kalifikazioari buruz, ezta eragiketa ordainarazteko eskumenari buruz ere.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKITZEN DU

1.- 14/2019 gatazka amaitu dela deklaratzeko eta jarduketak artxibatzea.

2.- Erabaki hau jakinarazteko Zerga Administrazioaren Estatu Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta VSLri.